

Kaixo

2012 EKAINA / 111. ALEA

urretxu!

4. orrian

ILUSIO ETA INDAR BERRIAK SANTA BARBARAN

Jatetxe-Aterpetxeko

maizter berriekin elkarrizketa

2. orrian

HONDAKINEN GAIKAKO SAILKATZEAN BESTE URRATS BAT EMAN DU URRETXUK

Prebentzioa, berrerabilpena eta birziklatzea hobetsiko dira

8. orrian

BI TARTEANEN MERKATARI ASTEA

Elkartek elkargune berri bat zabaldu du bazkideentzat

10. orrian

ANDONI SALAMEROREN LIBURU BERRIAK JAPONIARA GARAMATZA

«Poesiaren sumendi ezkutua» aurkeztu du olerkariak

Kaixo urretxu !

Urretxuk gaikako sailkatzean beste urrats bat eman du

Argi dago Europak markatzen dituen irizpideei jarraiki, Urretxuk ere hondakinen inguruko hausnarketa eta lanketa bat behar duela. Testuinguru horretan kokatzen dira, beti ere Europak ezartzen duen hierarkiari jarraituz, Urretxun hemendik aurrera emango diren urratsak. Pausoz pauso eta hondakinik onena sortzen ez dena dela argi izanik, pausoak ematen hasiko gara

Lehen indargune nagusia hondakinen prebentzio eta ez sortzean kokatuko genuke, autokonpostaia eta auzokonpostaia erabiliz, hondakin organikoen bidez konposta lortzeko. Urretxun berdegu-neak edo lorategiak dituzten 115 etxebizitza daude eta datozen egunetan Sasietako teknikariak bizilagunengana hurbilduko dira, dagoeneko autokonpostaia lantzen dutenen zalantzak argitu eta beharrak ezagutzeko eta autokonpostairik egiten ez dutenak egitera animatzeko. Gainera, auzokonpostaia ere landu nahi da eta hasierako fase batean,



Kaixo urretxu !

2012 EKAINA / 111. ALEA

Ale honetako laguntzaileak: Unai Badiola, Julen Garralda, Andoni Salamera eta Kizkitza Ugarteburu.

Argazkiak: Asier Zaldúa, Unai Badiola, Auxtin Zamora, Unai Orbe-goza eta Ur Artola

Lege Gordailua: SS/678/93

Konposaketa eta diseinua: Ur Artola Probanza

Koordinatzailea: Jon Ormazabal

Inprimaketa: ANTZA **Tirada:** 3.300 Ale

KAIXOK ez du derrigorrez bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

KAIXO no se identifica necesariamente con las opiniones de sus colaboradores, ni se hace responsable de las mismas.

Ez bazara Urretxun bizi eta KAIXO aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, eman zure helbidea 943 03 80 88 telefonoan edota kultura.ur@urretxu.net helbide elektronikoan.

Si no vives en Urretxu y quieres recibir la revista KAIXO en tu buzón, déjanos tu dirección en el teléfono 943 03 80 88 o bien en kultura.ur@urretxu.net.

Aparicio, Mundo Mejor eta San Martinen saiakerak egingo dira.

Filosofia berri horren bigarren mailan berrabilpena legoke eta Sasieta mailan zenbait ekimen aztertzen ari dira, bigarren eskuko merkatuak egitea baloratu eta gure elektratesnak konpondu ahal dizkiguten dendak identifikatuz.

Hondakin sortaile bereziekin ere, hala nola supermerkatu, taberna edo denda handiak, langintza berezi bat jarriko da martxan etorkizun hurbilean.

Hierarkia honetako hirugarren lekuan birziklatzea legoke eta hor Urretxuko udalbatzak edukiontzia marroia ezartzeko hautua egin zuen, materia organikoa zabortegira bota ordez, konpost bihurtzeko. Sasieta teknikeri den Iñaki



Erauskinen hitzetan, *«etxean sortzen dugun hondakin zatirik handiena, %40 gutxi gora behera, materia organikoa da».*

Proposamen berri honetan parte hartu nahi duten herritarrek dagoeneko jaso dituzte edukiontzi marroia irekitzeko giltza, poltsa konpostagarriak, aireztatutako ontzi marroia eta informazio orria eta gainera, uztailearen 18tik 20ra mahai informatiboak jarriko dituzte Gernikako Arbola plazan.

Ezarritako helburuak betetze aldera, Udal Gobernuko ordezkariak gaiaren jarraipen zehatza egingo dutela helarazi dute, hiru hilabetez behin Sasieta bitartez portzentajeen eboluzioa ikusteko eta paraleloki hobekuntza eta kontzientziazio lanak burutzeko.



«Proiektu profesional bat da, baina batez ere bihotzarekin egindakoa da asko»

Gazteak izanagatik, Iñaki Lizarralde eta Manex Buronek esperientzia handia (Fox eta Kortaberriko maizterrak dira) bildu dute ostalaritza munduan eta euren ametsetako bi batera gauzatzeko aukera ireki zaie

Manex Fox-eko lehen zerbitzarietako bat izan zenetik daukate elkarrekin proiekturen bat egiteko asmoa berak eta Iñakik eta Santa Barbarako Taberna-Aterpetxeak amets hau horrenbeste maite duten inguru batean egiteko aukera eman die. Baina proiektu honetan ez datoz bakarrik, euren ohiko lantaldeetatik, haurrekin eta taldeekin lanean denbora asko emandako Julen Garralda eta Naiara Herraiez batu zaizkie aterpetxeari ere behar duen garrantzia emateko. KAIXO eurekin izan da, etapa berri honen nondik norakoak ezagutu asmoz.

Nolatan Santa Barbarako Taberna-Aterpetxea hartzearen ideia?

// Beti izan dugu elkarrekin negozio bat bat irekitzeko asmoa eta gainera Santa



**Manex Buron eta Iñaki Lizarralde
Tabernariak**

Barbaran... Beti ibili izan gara asko inguruan, Manexen familiak Erratzu base-rrian ditu erroak, gainerakoon umetako oroitzapen asko ere bertakoak dira; han izan genituen naturarekiko lehen harremanak, garai bateko elur jolasak, San Joan erromeriak, Irimorako irteerak...

En nuestros sueños siempre ha estado la posibilidad de coger Santa Barbara, sobre todo en el caso de Iñaki.

Sarri izan dugu hizketa gai, hau eta beste egingo genuke, eta bat-batean aukera hau heldu da, ametsa posible izan zitekeela ikusi dugu eta erronka hau ilusio handiz hartu dugu.

Zeintzuk lirateke zuen proiektuaren ideia nagusiak?

// Ideia nagusia da Manexek eta Iñakik eramango dutela gehienbat ostalaritza lana, taberna eta jatetxea, eta Naiarak eta Julenek gehiago aterpetxea eta honen inguruko ekintza desberdinak. Aterpetxera etor daitezkeen eskola eta taldeei zerbait eskaini nahi diegu, ez ohea bakarrik, beti ere ingurugiroa eta aisialdia ardatz hartuta, ez daitezela bakarrik lo egitera etorri.

Baina ez da eredu itxi bat, denek arlo guztietan hartuko dugu parte. Gainera, ez gara gu laurok bakarrik, proiektu bat garatzen ari gara, Fox bertako beste zerbitzariak, Iker Igartua esaterako, taldean sartuta dabiltz eta baita beste zenbait lagun ere. Izan ere, Santa Barbara espazio publiko bat bezala ulertzen dugu, guk kudeatuko genukeena, baina bertan ia edozein gauzak lekua izango lukeena.

Queremos hacer un proyecto que vaya más allá de un bar-restaurante, siempre con el ocio y la naturaleza como base. Es un espacio público y la participación de la gente no es solo bienvenida, sino que es necesaria.

Alde horretatik, bai Fox eta baita Kortaberri ere, beti izan dira bezeroari jan-edanaz harago, beste zerbait ematen saiatu diren tabernak.

// Hala da eta horri jarraipen bat eman nahi genioke. Orain arte egin dena ez da kasualitatea. Urteak daramatzagu, kontaktatu piloan egin ditugu, jende asko ezaugu. Oso momentu onean heldu zaigula iruditzen zaigu.

El que se acerque al restaurante tendrá menús, platos combina-



dos y una pequeña carta, pero sobre todo trabajaremos los pintxos y los bocadillos. Tenemos claro que siempre habrá la oportunidad de comer algo.

Hitz batean esateko, bizia eman nahi diogu, jendea igo dadila bertan zerbait eskaintzen zaiolako. Herriak berea egitea nahi genuke.

Bertako produktuei ere garrantzia eman nahi diogu, erabili eta sustatu, beraiekin lan egin. Herri kirolen inguruko zerbait egitea ere gustatuko litzaiguke, toka beti egon da Santa Barbaran...

Jatexera hurbiltzen denak zer nolako janak aurkituko ditu?

// Pixka bat denetarik, menuak egongo dira baina baita plater konbinatuak, karta ez oso zabal bat ere eskeiniko

dugu. Baina, batez ere, pintxoak, bokatak eta horrelako gauzak landuko ditugu. Beti egongo da zerbait jateko aukera, hori argi daukagu, sukalde minimo bat beti egongo da. Eta gero, eguerditan menua eta gauetan plater konbinatuak edo halakoren bat.

Aterpetxea dela oso argi daukagu, agian ez da mendi aterpetxe klasiko bat, errepeidea bertaraino iristen delako, baina zentzu hori eman nahi diogu, inguruarekin, mendiarekin lotu, pintxo bat, salda bat... beti egongo dira. Aterpetxera etortzen direnentzat ere menu bereziak egongo dira, batez ere umeak badira.

Aterpetxeari ere buelta bat eman behar zaio beraz?

// Badirudi baietz. Publizitate gehiago egin, web orri bat ere sortu nahi genuke, hortik mugitu taldeak eta erakarri, eskolak, aisialdi taldeak... Naiara eta Julen



horrelako lan sozialetan aritutakoak dira.

Ez gara, inolaz ere, turismo bulego bat izango, baina inguratzen den orori informazio osatua eta gure gomendioak eskaintzeko moduan prestatuak egongo gara.

Krisi hotsa besterik entzuten ez den garai honek ez dirudi unerik ego-kiena halako abentura batean sartzeko.

// Horregatik, zerbait egin beharra dago. Animoak pilo bat ditugu, oso inplikaturik eta gogo handiarekin gaude. Izan dadila probetxugarria eta betetzen gaituen zerbait.

Hay que darle una vuelta al tema del albergue, darle más publicidad, crear una web y moverse

para atraer a escuelas y grupos, a los que además hay que ofrecerles algo más que una cama.

Garai txarrak dira baina hemen gaude. Bertigo apur bat ematen du, inbertsio bat badago, baina garai ona izan behar luke. Momentua horrela tokatu da, gauzak gertatu egiten dira eta lan talde ona dago.

Fuerte hasta que se acabe, una idea da y una oportunidad de hacer algo diferente.

// Lehen ideia tokiari neurria hartzea da, batez ere taberna-jatetxea eta aterpetxea martxan jartzea. Ekintza batzuk ere egin nahi ditugu, uztailan edo egongo da zerbait. Gero urte guztirako programa garatzen hasi behar dugu, eskolek eta irail aldean prestatzen dituzte eta urteko irteerak.





Kizkitza Ugarteburu

Igartubeiti Baserri Museoko Koordinatzailea

Bi-Tartean Merkataritzaren Astea

Bi-Tartean elkarteak ekainean zehar ospatu du merkataritzaren astea. Zozketak, erakusketak eta ikastaroak antolatu ditu, eta denen artean protagonista izan den Bi-Tartean Topagunearen ate-irekitzea

Ekainak 11tik 26ra, Bi-Tartean-eko dendetan erosi duten bezeroen artean, 6 egonaldi zozketatu dituzte 2 pertsonentzat Kantabriako nekazal etxeetan. Zozketa ekainak 28an egin zuten eta saridunak honako hauek izan dira: 3x3 txapelketan Joseba Salegui eta Imanol Betegi.

Kantabriako Casa Alfonso asteburuak: Mlren Ibaizabal (Insausti Harategia), Garbiñe Iturbe (Calzados Txiki) eta Ainhoa Elgarresta (Lofer).

Asturiaseko Casa Albotrosen asteburuak: Maria Anguas Martín (Autoservicio Ocariz), Begoña Castrillo (Belarzain Belardenda) eta Mikel Aramendi (Ferreteria Urdangarín) Zorionak irabazleei !!

Kemen, Euskadiko Pertsona Ezinduen Kirol Elkartearen argazkiak, Bi-Tartean Elkarte optiketan, kirol dendetan eta audifono dendetan izan dira ikusgai, ekainaren 7tik 19ra bitartean.

Ekainak 16an Goierrik eta Eiluz (Urola Garaiko Gutxitu Fisikoen Elkarteak) an-

tolatu zituzten kirol jardueretan proba batzuk antolatu zituzten. Irabazleek 75€ko erosketa baleak lortu zituzten Bi-Tartean denda eta tabernatan erabiltzeko.

Ekainak 14ean, 14:30etan, Urretxuko kultur etxean, merkatariei zuzendutako ikastaroa, "Zer egin dezaket eta zer ez nire bezeroen mugikorraren bidez?", Gipuzkoako Ganbararekin elkarlanean. Smartphone telefonoen erabilera etengabe zabaltzen doanez, merkatarientzat oso garrantzitsua da bezeroekin harremanak hobetzeko honen erabilera anitzak ezagutzea. Tailerrak oso harrera ona izan zuen denda eta tabernarien artean, 16 parte hartzaile izan zituelarik.

Ekainak 18, 19 eta 20an Urretxuko kultur etxean "Komunikazioa eta girotzea sal-tokian", gaur egungo tendentziei buruzko jardunaldia izan zen. Bertan, produktuak nola aurkeztu, musika eta usainen eraginei buruz eta bezeroek dendan esperientzia atseginak izatea nola lortu azaldu zuen hizlariak. Gainera, parte hartzen zuten dendetara bisitak

egin eta gomendioak eman zituen giro-tzea hobetzeko. Jardunaldi hauek ere arrakastatsuak izan ziren, 13 parte hartzaileekin, denak establezimendu ezberdinetakoak.

Bi-Tartean Topagunea izena eman diote Sekundino Esnaola kalean dagoen gune berriari. Bertan elkartek bere bilerak egingo ditu eta formakuntza ere eskainiko du. Horretaz gain, bazkideei aukera eskainiko zaie erabili ahal izateko, bezeroei zerbitzu berriak eskaini eta lehiakortasuna hobetzeko helburuarekin (outlet-ak, tailerrak eta produktuen aurkezpenak esaterako). Herriko beste eragileekin ere elkarlanean hasi nahi dute sinergiak sortu eta lokala dinamizatzeko helburuarekin. Beharren arabera ikusten joango dira topagunearen erabilera. Ekainak 28an 20:00etan egin zen ate-irekitzea "Gure historia gogoan" argazki erakusketarekin. Argazki hauek Urretxu eta Zumarragako pertsona ezberdinek utzi dizkiete elkarteari eta Argazkia argazkilari elkartek lagundu die erakusketara osatzen. Dendek herrian izan duten garrantzia eta beraien garapena adieraztea da helburua. Erakusketa hau hasiera batean uda bukaera arte egongo da ikusgai. Horrez gain, espazio hau merkatarientzat informazio puntua izango da eta astelehenetik ostiralera egongo da irekita.

La Semana del Comercio Bi-Tartean

Bi-Tartean ha celebrado durante el mes de junio La Semana del Comercio, con numerosas actividades: sorteos de estancias de fin de semana, jornada "¿qué puedo hacer y qué no con el móvil de mi cliente?". Jornadas sobre las tendencias y la ambientación del comercio para que



los clientes vivan una experiencia agradable, donde se explicará como presentar los productos, la influencia de la música y los olores, etc.

El 28 de junio se inauguró el Punto de Encuentro Bi-Tartean situado en la calle Secundino Esnaola, donde se podrá ver una exposición de fotografías antiguas y actuales de los comercios hasta finales de septiembre. Este espacio estará a disposición de los asociados para todas aquellas actividades que deseen llevar a cabo con el objetivo de ampliar los servicios que ofrecen a sus clientes y mejorar a su vez la competitividad. Además, será un punto de información para los comercios y estará abierto de lunes a viernes.

«Japonia: Poesiaren sumendi ezkutua», Andoni Salameroren bihotzerako bidaia kolektiboa

Japoniako eta Txinako poesiak, ekialdeko filosofiak orokorrean, betidanik txunditu izan dute Andoni Salamero; naturari dioten errespetua, isiltasuna entzun eta ulertzeko modua, emozioak transmititzeko era... Fisikoki olerkaria ez da sekula herrialde horietan egon, baina «Japonia: Poesiaren sumendi ezkutua» proiektuarekin, Fuji mendiaren ingurura, Tokioko zurrumbilora edo arroz-soroen tartera gonbidatzen gaitu bidaia kolektibo baten bidez

Bere babeslekuan gordetzen den «artistaren» irudiaren aurrean, esperientzia kolektibo bat bezala ulertzen du egileak bere lana eta helburu nagusia argia da, gizabanako bakoitzarengan, sor dezatela argazki eta olerki bakoitzak, norberari sentitzen dituen eran, ekialdeko herri honek Salamerorengan sortu duen grina eta sosegua.

Mapa zehatzik ez duen lan honen irteera puntua, Martin Jauregialtzok –Salameroren lankidea–, honen neskalagunak eta beste lagun batek Japoniara egindako bidaiaren aurki genezake. «Bueltan eskolara etorri zen, inguru harekiko nuen zaletasuna ezagututa, atera zituen milaka argazkiak erakutsi zizkidan, asko gustatu zitzaizkidan eta orduantxe horrekin zer-bait egitea bururatu zitzaigun».

Norabideak zehaztuta, Andoni Salamerok argazki hauetariko batzuk aukeratu, berarentzat esanguratsuenak zirenak, eta bakoitzari olerki bat bat gehitu zien. «Argazkiek ibilbide bat erakutsi behar zuten eta Japoniaren nire interpretazioa eta nire ibilbidea atondu nituen, olerkien arteko oreka bat bilatuz eta nire konposizioa eginaz».

Lanari nolabaiteko osotasun bat eman asmoz, olerkiak itzultzeko modua aztertu eta bideragarria zela ikusita, Goi-hata enpresa arduratu zen bere poemak japonieratzeaz.

Bidaia guztiek bezala, finantziarioak eta burokraziak ere izan zuten euren tartertxoa bidaia honetan. Urretxu eta inguruko beste hainbat udalen diru

laguntzaz harago, enpresa pribatuen babesa ere bilatu zuen Salamerok eta atsegin handiz, eta krisi garai hauetan baita harridura apur batez ere, Irizar, Fagor, Aleman eta U.Z. bezalako enpresek kulturari inbertitzeko hartutako erabakia eskertu zuen. Hezkuntza mundutik ere, Oñatiko Elkarhezi eskolaren laguntza ere nabarmena izan zen, zuzenketak egin eta aholkuak eman zizkion. Iñaki Bastarrika edota maketazioaren ardura izan zuen Maku Oruezabalena izan zen bezala.

Liburuek, ordea, apalean geratzearen arriskua izaten dute sarri eta sentipenak elkar trukatzeko beste bidaia kolektibo batzuk prestatu dituzte, lanaren aurkezpen gisa, bidaiatzea kilometroak jatea


baina askoz gehiago dela iritzita. Hala Koldo Mitxelena egindako aurkezpen ofizialaren ostean, Urretxuko Labeaga antzokia tren geltoki bihurtu zen pasa den ekainaren 22an.

Oñatiko Ganbara Txiki abesbatza, Eli Mendaraz teklatu jolea, Mariaje Arratibel flauta jolea eta Zuhaitzaren Soinua Kolektiboko txalapartariak bidaide hartuz, Japoniako lurralde misteriotsura barneratu ziren hara gerturatutakoak. Sortzaile bakoitzaren ekarpenek osatutako paisaiek bidaiari bakoitzarengan sortu zituzten sentipenekin, Japonia dagoeneko ez da horren urrun geratzen eta trenari oraindik geltoki asko geratzen zaizkio bisitatzeko.



KARROZAK EGITEKO IKASTAROA **DOAN**

Parte hartzeko izen ematea uztailaren 10era arte



Urretxuko kultur etxea

Tel. 943 03 80 88



Urretxuko udala

EUSKAL JAIK 2012

Ikastaroa uztailaren 12tik 27ra bitartean (ikastaroaren egunak eta ordutegia taldeen arabera zehaztuko dira).